

“Azken tren” film laburra Euskal Herriko 36 herritan erakutsiko da, Topaguneak eramanda

2008/03/04

Topagunea elkarrekin Azken tren izeneko film laburra aukeratu du, **Film Laburren Zirkuituan** erakusteko, berau bosgarren aldiz egiten denean. Apirilaren 3tik maiatzaren 16a bitartean, **Azken tren 36 herritan** erakutsiko da, Ipar zein Hego Euskal Herrian.

Labur hori HUHEZIKo ikasle talde batek egin zuen, "**Ikus-entzunezkoen produkzioa eta errealizazioa II**" ikasgaiaren barruan, Ikus-entzunezko Komunikazioa karreraren 4. mailan. Ikasleak dira: Lierni Alkorta, Mikel Alvarez, Ane Aranburu, Nerea Barrutia, Beñat Garzia, Maite San Martin eta Txomin Tapia. Zenbait herritan, egileak berak izango dira filma aurkezten.

Egun batean grabatu zen film hau, 2008ko urtarrilaren 2an, **Beasaingo tren geltokian**. Aktore nagusiak **Gorka Zubeldia** eta **Libe Aranburu** izan ziren. Editatu ere, egun bakarrean editatu zen. Horrela kontatzen du Mikel Alvarezek The Indezents blogean. Harrezkero, YouTubean izan da ikusgai *Azken tren*.

